**ERRENTERIA UDALA**
Hezkuntza / Educación

Errenteriako Udala
Zbk./ Nº 2024-2147
Data / Fecha 2024/04/09 13:44
Irteera / Salida

**Espediente zk./**Nº expediente**:** 2023ZIZE0008 **Erreg. data/**Fecha reg**:**
**Erreg. zk** ./ Nº registro**:** 000000
**Gaia/**Asunto**:** 2023-2024 ikasturtea - Progresibitatea UZTARGI haurrekolako jangela IRAILA
**Eskatzailea/**Solicitante**:** ERRENTERIAKO UDALA **NAN(IFK)**/DNI(NIF)**:** P2007200E
**Kokalekua/**Emplazamiento**:** BARRIO ALABERGA/ALABERGA AUZOA ERRENTERIA **Dekretu zk./**Nº Decreto**:**

## JAKINARAZPENA

**Jakinarazten dizut Eneko del Amo, Ogasuneko zinegotzi delegatuak 2024ko apirilaren 4an, ondorengo dekretua eman duela:**

## AURREKARIAK

Udalbatzak, 2023ko martxoaren 28an egindako osoko bilkuran hartutako hasierako erabakia, Ordenantza Fiskalen 2. aldaketari buruzkoa, finko eta behin betikotzat 2023ko ekainaren 12an GAOn argitaratu zen (112. zk.).

Tasa horiek arautzen dituen ordenantza fiskalean ezarritakoaren arabera, ordaindu beharreko kopurua erabiltzaile bakoitzaren gaitasun ekonomikoaren arabera ezarriko da, hau da, progresibitate irizpidea aintzat hartuz.

Horretarako, interesdunek espresuki eskatu beharko dute hori aplikatzea. Eta horretarako eskabiderik egiten ez bada, dagokion tasa edo prezio publikoaren tarifa osoa aplikatuko da.

Errenteriako Udalak, besteak beste, UZTARGI haurtzaindegiko jantokiko zerbitzua dauka. Haurtzaindegian izena ematen duten erabiltzaileek jantokiko zerbitzua ere badute.

UZTARGI haurtzaindegiko jantokiko zerbitzua 2023ko irailetik 2024ko uztailera bitarte eskainiko da.

## NOTIFICACIÓN

**Pongo en su conocimiento que Eneko del Amo, concejal delegado de Hacienda, con fecha 4 de abril de 2024 ha dictado el siguiente decreto:**

## ANTECEDENTES

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el 28 de marzo de 2023, aprobó inicialmente la 2ª modificación de las Ordenanzas Fiscales para el año 2023. La aprobación definitiva de dicha modificación, se publicó en el BOG de fecha de 12 de junio de 2023 (n.º 112).

De acuerdo con lo establecido en la ordenanza fiscal reguladora de estas tasas, la cantidad a abonar se determinará en función de la capacidad económica de cada usuario, es decir, atendiendo al criterio de progresividad.

Para ello, las personas interesadas deberán solicitar expresamente dicha aplicación. Y caso de no realizar solicitud en dicho sentido, se aplicará la tarifa completa de la tasa o precio público correspondiente.

El ayuntamiento de Errenteria dispone, entre otros, del servicio de comedor en la guardería UZTARGI. Las personas usuarias que se inscriban en la guardería, disponen también del servicio municipal de comedor.

El servicio de comedor de la guarderia UZTARGI se prestará desde septiembre de 2023 hasta julio de 2024.

ESKU46adb7b8-7b89-4b1c-ad77-af37cf69d82a

2023ko abendua eta 2024ko otsaila bitartean 4 haur hasi dira jangela zerbitzua erabiltzen. Pertsona horietatik, tasa ahalmen ekonomikoaren arabera egokitzeko sistema aplikatzeko eskatu dute Uztargiko jantokia erabiltzen duten 2 pertsonek.

El número de personas que han comenzado a utilizar el comedor de la guardería entre diciembre de 2023 y febrero de 2024 es de 4 niños/as. De dichas personas inscritas, han solicitado que les sea aplicado el sistema de adaptación de la tasa en función de la capacidad económica 2 personas usuarias del comedor de Uztargi.

Eskaera horiek espedientean jasota daude eta bertan ondare mailako baldintzak betetzen dituztela dioen adierazpen zinpekoa jasotzen da.

Las solicitudes están recogidas en el expediente. En dichas solicitudes consta declaración jurada de que cumplen los requisitos patrimoniales.

Eskaerak eta dokumentazioa aztertu ondoren, Naia Marin, Hezkuntza eta Gazteria Departamentuko teknikariak horri buruzko txostena egin du 2024ko apirilaren 3an.

Tras analizar las solicitudes y la correspondiente documentación, la técnica del departamento de Educación y Juventud, Naia Marin, emite informe al respecto con fecha de 3 de abril de 2024.

**ZUZENBIDE OINARRIAK**

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena. 85. art.

Toki-araubidearen gaietan indarrean dauden Legezko Xedapenen Testu Bategina (apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartua). 95 eta 106 artikuluak.

2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. 2.3, 16, 93 eta 94 artikuluak.

93/2019 Dekretua, ekainaren 25ekoa, udal-eskumenen klausula unibertsalaren ondoriozko jardueren, zerbitzuen edo prestazioen egikaritzea arautzeko dena.

Toki-korporazioen Zerbitzuen Erregelamendua (1955ko ekainaren 17ko Dekretuak onartua). 30 eta 31 artikuluak.

Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arau Erregulatzailea.

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

Ley 7/1985, de 2 abril 1985, reguladora de las Bases del Régimen Local. Art. 85

Texto refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local, aprobado por Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril. Arts. 95 y 106.

Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi. Arts. 2.3, 16, 93 y 94.

Decreto 93/2019, de 25 de junio, sobre el ejercicio de las actividades, servicios o prestaciones derivados de la cláusula universal de competencias municipales.

Reglamento de los Servicios de las corporaciones locales (aprobado por Decreto de 17 de junio de 1995). Arts. 30 y 31.

Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

ESKU46adb7b8-7b89-4b1c-ad77-af37cf69d82a

Errenteriako udaleko Ordenantza Fiskalak.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta Idazkari Nagusiak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Honen bidez,

**EBATZI DUT**

LEHENENGOA.- **Onartzea** UZTARGI udal haurtzaindegiko jantokiko zerbitzua 2023ko abendua eta 2024ko otsaila bitartean erabiltzen hasi duen erabiltzaile bakoitzak ordaindu beharreko tarifaren portzentajea. **Hona hemen zerrenda**:

Ordenanzas Fiscales del Ayuntamiento de Errenteria.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias que me han sido conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, y con la conformidad dada por la Secretaria General a la propuesta de decreto que consta en el expediente.

Por la presente,

**RESUELVO**

PRIMERO.- **Aprobar** el porcentaje de la tarifa que le corresponde abonar a cada persona usuaria del servicio de comedor de la guardería municipal UZTARGI que ha comenzado a utilizar el servicio de comedor entre diciembre 2023 y febrero 2024 y **cuyo listado se relaciona a continuación:**

| **UZTARGI HAURRESKOLAKO JANGELA ZERBITZUA 2023/24 IKASTURTEA** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Zkia.** | **Guraso edo tutorearen NAN-a** | **Zerbitzua erabiltzen duen haurra** | **Progresibitate eskaera** | **Progresibitate eskaeraren data** | **Jangela zerbitzuan hasiera data** | **Kuotaren %a** |
| 1 | 725***53J | SLB | Ez | - | Abenduak 1 | %100 |
| 2 | Y15***50C | MHPP | Bai | 2023/11/24 | Otsailak 1 | %0 |
| 3 | 441***43T | MPA | Bai | 2023/11/29 | Otsailak 1 | %75 |
| 4 | 445***03J | LV | Ez | - | Otsailak 1 | %100 |

BIGARRENA.- Ebazpen hau argitaratzea espedientean zehaztu diren komunikazio publikorako tresnen bidez eta udalaren Ogasun Sailari jakinarazi.

SEGUNDA.- Hacer pública esta resolución mediante los medios de comunicación pública concretados en el expediente y ponerla en conocimiento del área municipal de Hacienda.

ESKU46adb7b8-7b89-4b1c-ad77-af37cf69d82a

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtso.

NON: dagokion Administrazioarekiko Auzien Epaitegia.

EPEA: bi hilabetekoa, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Contra el presente acuerdo, que es definitivo, y pone fin a la vía administrativa, podrá interponer recurso contencioso-administrativo o cualquier otro recurso que estime procedente.

LUGAR: ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo correspondiente.

PLAZO: en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente de su notificación.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado anteriormente, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá/n Vd/s. interponer recurso de reposición, ante el mismo órgano que la dictó, en el plazo de un mes que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Errenteria, en la fecha de la firma

Idazkari orokorra / La secretaria general

Ainhoa Esnaola Zubeldia

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| **Titulua / Título:** | 2023ZIZE0008-JAKINARAZPENA III/NOTIFICACIÓN III (ERRENTERIAKO UDALA) |
| --- | --- |

Sinatzailea 1 / Firmante 1: AINHOA ESNAOLA ZUBELDIA - 72522979T
Data / Fecha: 2024/04/09 12:19:24